

[Eremuak erakusketako komisarioen testua]

HAMAHIRU

Eremuak erakusketa kolektiboaren hirugarren edizioa da hau. Lau urtean behin egiten da, eta hurbilen dagoen testuinguru artistikoari «pultsua hartzea» du helburu, gertuko ingurunean sortutako artearen une jakin bat erakusten saiatuko den begirada kolektibo baten bidez. Orain arte, bi erakusketa egin dira lan-ildo horren barruan: *First Thought Best*, Artiumen, 2014an, eta *Bi Dos Two*, Azkuna Zentroan, 2018an. Hirugarren hau Donostiako Tabakalera egingo da.

Oraingo honetan, erakusketak HARRIAK programa hartuko du abiapuntu gisa. HARRIAK programa, berez, euskal testuinguruko artisten aukeraketa esanguratsua da. HARRIAK 2016an jarri zen abian, **eremuak**en ekimenez, arte bitartekaritzarako, erakusketetarako eta dibulgaziorako espazio berriak aktibatzeko xedez. Programa Euskal Autonomia Erkidegoko kultur etxeetako hainbat aretotan zabaldu da, eta artistek zein bitartekariak parte hartu dute bertan. Abian izan den lehen sei urteetan, HARRIAK programak hogeita hamar erakusketa inguru egin ditu hainbat herritan, eta belaunaldi ezberdinetako laurogeita hamar bat artistak parte hartu dute horietan. Beren ibilbidearen hasieran dauden artistei eman zaie lehentasuna. HARRIAK programaren baitan garatutako jarduerak biltzen dituen jardunen artean, nabarmentzekoa da arteak sei urte hauetan zehar landu dituen askotariko erregistro eta diziplinetan jarritako arreta konplexua. Horrela, programaren jardueraren bidez, gure testuinguruak biltzen dituen sentsibilitate desberdinak antzeman daitezke.

Eremuak erakusketa kolektiboak ingurune hurbilari «pultsua hartzeko» duen helburuarekin bat etorriz, euskal artearen «hemengo eta oraingo» ikuspegia osatzen du HARRIAK programak bere lehen sei urteetan egindako erakusketen baturak; beraz, abiapuntu egokia da erakusketa antolatzeko.

Hamahiru

Erakusketaren izenburuak –*Hamahiru*– erakusketa osatzen duten artisten kopuruari egiten dio erreferentzia, arreta artistengan jarri nahi baitu. Alegia, hamahiru artistak eta haien lanek osatzen dute erakusketa. Hamabi izango balira, erakusketa desberdina izango litzateke, artistetakoren bat aldatuko balitz edo bat gehiago egongo balitz ere desberdina izango litzatekeen bezalaxe.

Honela zerrenda daitezke hamahiru artista horiek egindako ekarpenak:

- Aretoko izkina bat eta horma baten zabalera paper-zerrenda batekin markatzea.
- Aretora eramatea norbait eraikinean sartzeko den unea. Ate nagusiaren soinua entzutea norbait sartzeko den bakoitzean.
- Aretoko espaziora egokitzea uda batez Eako ibaian urperatuta egon ziren artefaktuak.
- Hormak musukatzea. Zerua musukatzea. Espazioa musuz marraztea.
- Gogora ekartzea banilla- eta marrubi-izozki baten irudia.
- Desplazamenduen sekuentzia bat bilatzea hormaren ondoan, non hondartzako itsas bazterren irudia (eta hango paseoa) baitago.
- Horman zehar zurezko pieza txikiak sakabanatzea.

- Horma bat tamaina desberdinetako paperez estaltzea. Marrazkiak, pintura, animaliak, adarbakarrak, arrosa fosforitoa.
- Hainbat ehun-elementu aktibatzea eta eraldatzea ekintza baten inguruan.
- Ekintza bat sortzen den lekutik ikustea. Pilota urruntzen eta hurbiltzen ikustea palatik bertatik. Ikuspuntua aldatzea, jatorrira joatea, horretarako artefaktu bat sortzea.
- Taupada bisual batean bizitzea, pinturatik ezer itxaron gabe, pintura izanda soilik.
- Espazioan marrazki esekiak proiektatzea, disoluzio-saio bati aurre egiteko.
- Lekua pentsatzea eta hortik jardutea.

Bestalde, erakusketaren izenburuak, *Hamahiru*¹, zenbaki horren inguruko sinbologiarekin jolasten du. Jakina da Europako herrialde askotan eta Amerikaren zati batean hamahiru zenbakia zorte txarrekozat jotzen dela, batez ere asteartearekin edo ostiralarekin bat egiten duenean. Hala, hamahiru zenbakiak konnotazio negatiboak ditu kultura askotan, batez ere erlijioari lotuta, adibidez, kristautasunaren barruan, azken afarian izandakoen kopuruari dagokionez. Era berean, numerologian, hamabiak gure denbora markatzen du, orduka eta hilabeteka, eta «digitu perfektutzat» jotzen da; hamahiruak, berriz, guztiz kontrakoa adierazten du.

Hau da, hamahirua zenbaki inperfektu edo osatugabe gisa, erakusketa bera bezala, zeina euskal artearen hemengo eta oraingo testuinguruaren errepresentazio osatugabea, partziala eta ez-perfektua baita.

Begirada subjektiboa eta aurrez zehaztu gabeko forma

Artistak aukeratzea eta komisariotza **eremuakeko** batzorde teknikoari dagozkio, hauei, alegia: José Ramón Amondaraini, Aimar Arriolari eta Leire Muñoz, batzordeko kide ohia den Maider Lópezekin batera.

Artistak hautatzeko unean, erakusketaren komisariotzak begirada subjektibo batekin egiten du lan, hautaketak berak jarrera bat dakarrela onartuta. Era berean, ulertzen da begiraleku horrek euskal testuinguruko artearen hemengo eta oraingo argazkia osa dezakeela. Begirada horrek irudi bat sortzen du, une bat, hamahiru artista argitara ekartzea.

Hautaketa orok dakar berekin formarik gabeko formaren nahia, zeinak bere gain hartzen baitu osatugabetasuna zein objektibotasunez jokatzeko ezintasuna. *Hamahirun*, prozesuaren hasieratik onartu da erakusketa ez dela egituratu behar aurrez ezarritako forma bat abiapuntu hartuta edo kalkulu baten ondorioz. Aitzitik, obra jakin bat espazio berrira egokitzeko edo pieza berri bat sortzeko gonbita egin zaie artistei, haien proposamenak, izaerak eta prozesuak oinarri hartuta, baita haietako bakoitzaren erritmo partikularrak aintzat hartuta ere. Erakusketa osatzen duten elementuak lekua aurkituz joan dira erakusketa-espazioan, eta espazio hori beste elementu bat izan da, bere espezifikotasun osoan.

¹ Euskal artearen testuinguruan, hamahiru zenbakia Ez Dok Amairurekin lotuta dago, ezinbestean; hau da, 1966 eta 1972 artean euskal kultura berreskuratzen eta berritzen jardun zuen euskal kultura-mugimendu abangoardistarekin. Mugimenduaren izena Jorge Oteizak proposatu zuen, *San Martinen estutasuna* euskal ipuina oinarri hartuta, zeina «ez dok amairu» esaldiarekin amaitzen baitzen. Horren esanahia da ez dagoela sorginkeriarik edo begizkorik, hamahiruaren malefizioa hautsi egin dela.

Horrela, nolabaiteko fikzio gisa landu da erakusketa, non gertatzen dena erreala eta erakusketa-aretoa fikzio horren osagaia diren. Fikzio horri errealtate dei geniezaioke, edo, Yuval N. Harari filosofoaren hitzetan, «errealitate duala»²; hau da, errealtate fikzionala eta errealtate objektiboa aldi berean gertatzea.

Erakusketa aurrez zehaztu gabeko forma gisa ulertzeak aukera eman du artista bakoitzaren proiektuen izaera bere denboran –artista bakoitzaren denboran– jarduteko eta eboluzionatzeko; horrela, erakusketa definituz joan da, espazioa artisten artean banatu gabe eta obrak leku jakin batean kokatu gabe sorkuntza antolatuzeko.

Lan-prozesu horretan, beraz, erakusketa eratzeko prozesuan sortzen diren harreman-moten emaitza da egitura. Harremanak eta emaitzak ezin dira aurreikusi (edo atzera begiratuta soilik ikus daitezke); izan ere, kasu honetan, sentsibilitate irekian eta artearen inguruko gertaeretan oinarritzen da erakusketa-teknika, parte-hartzaileak gertatzen denaren aiduru jarrita.

Erakusketaren barruan eta kanpoan

Eremuak erakusketa kolektiboaren hirugarren edizio honek hainbat sarrera eta irteera ditu; hau da, harekin elkarrizketan sartzen diren beste ekimen batzuekin osatzen da. Hasteko, paraleloan egiten dira erakusketa kolektiboa eta HARRIAK 2022 hainbat kultur etxetan, erdigunearen eta periferiaren arteko orekari eutsiz, programa ikusarazteko eta balioesteko ahaleginean, baina baita kultur etxeak Tabakalerarekin eta alderantziz lotzeko ahaleginean ere. Horrela, bi norabideko sareak sortzen dira, kultur etxeak Tabakalera hurbilduz eta Tabakalera (eta bere publikoa) kultura-aretoetara hurbilduz, aurreko edizioetan ere **eremuak**ekin lan egin duten kultur etxeekin sorturiko sarea balioesteko eta sendotzeko.

Era berean, erakusketaren edukiak ez ezik, HARRIAK programaren lehen sei urteko ibilbidea ere laburbiltzen du, oraingoan, erakusketa kolektiboaren ohiko argitalpenak. HARRIAK programaren esperientziak liburu bakar batean bildu eta zerrendatu dira, orain arte ez zegoen eta sortzea garrantzitsua iruditu zaigun materiala osatzeko.

Bestalde, 2022an, ohiko **eremuak** jardunaldiak erakusketarekin batera edo modu paraleloan gauzatuko dira. Hau da, erakusketa-aldiaren barruan egingo dira jardunaldiak, eta haien programazioa erakusketaren inguruan egituratu da, erakusketarako nolabaiteko sarrera eta irteera eskainiz. Hala, jardunaldietako parte-hartzaileen artean erakusketako artista batzuk egongo dira, eta aurkezpenak egingo dituzte hainbat formatutan, erakusketan izan duten parte-hartzea zabalatzeko eta hura testuinguruan jartzeko. Era berean, beste gonbidatu batzuen parte-hartzea ere aurreikusi da. Haiek erakusketatik «kanpo» dauden hainbat alderdi nabarmenduko dituzte. Hala ere, horiek ere garrantzitsuak dira txertatuta dauden ingurune zabalagoa ulertzeko. Arteari eta artearen sistemari lotutako gaiak jorratuko dituzte, hala nola gure ingurune hurbileko artearen ekoizpena, interpretazioa eta bitartekotza.

² Harari, Yuval Noah. *Sapiens. De animales a dioses: Breve historia de la humanidad*. Debate, 2011.

Goian adierazitako behatzeko eta entzuteko jardunetik sortu da *Hamahiru* erakusketa. Egoera erreal eta fikziozkoa aldi berean, lehendik zegoen ingurune batean gertatzen dena eta izandako harreman subjektiboen ondorioz gaur egun existitzen dena.

José Ramón Amondarain, Aimar Arriola, Mainer López, Leire Muñoz.